

## **Convención sobre los derechos de las personas con discapacidad**

### **Preámbulo**

Los Estados Partes en la presente Convención,

- a) Recordando que los principios de la Carta de las Naciones Unidas que proclaman que la libertad, la justicia y la paz en el mundo tienen por base el reconocimiento de la dignidad y el valor inherentes y de los derechos iguales e inalienables de todos los miembros de la familia humana,
- b) Reconociendo que las Naciones Unidas, en la Declaración Universal de Derechos Humanos y en los Pactos Internacionales de Derechos Humanos, han reconocido y proclamado que toda persona tiene los derechos y libertades enunciados en esos instrumentos, sin distinción de ninguna índole,
- c) Reafirmando la universalidad, indivisibilidad, interdependencia e interrelación de todos los derechos humanos y libertades fundamentales, así como la necesidad de garantizar que las personas con discapacidad los ejerzan plenamente y sin discriminación,
- d) Recordando el Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales, el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos, la Convención Internacional sobre la Eliminación de todas las Formas de Discriminación Racial, la Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer, la Convención contra la Tortura y Otros Tratos o Penas Crueles, Inhumanos o Degradantes, la Convención sobre los Derechos del Niño y la Convención Internacional sobre la protección de los derechos de todos los trabajadores migratorios y de sus familiares,
- e) Reconociendo que la discapacidad es un concepto que evoluciona y que resulta de la interacción entre las personas con deficiencias y las barreras debidas a la actitud y al entorno que evitan su

## **Pertsona desgaituen eskubideei buruzko Konbentzioa**

### **Atarikoa**

Konbentzio honetako estatu alderdiek,

- a) Gogoraturik, Nazio Batuen Gutuneko printzipioek munduko askatasunaren, justiziaren eta bakearen oinarri gisa aldarrikatzen dutela halako aitortpena, gizaki orori dagozkion duintasuna nahiz balioa, zer eta eskubideak berberak eta besterenduezinak izatea,
- b) Aitortuz, Nazio Batuek, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta Giza Eskubideen Nazioarteko Itunetan, aitortu eta aldarrikatuaren haritik, pertsona orok dituela tresna horietan adierazitako eskubide eta askatasunak, inolako bereizkeriarik gabe,
- c) Berretsiz, giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztien unibertsaltasuna, zatiezintasuna, interdependentzia eta erlazioa, bai eta pertsona desgaituek halakoak osotasunean eta bereizkeriarik gabe egikaritzea bermatzeko beharrezana ere,
- d) Gogoraturik, Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Ituna, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, Arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioa, emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa, torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa, haurren eskubideei buruzko Konbentzioa eta langile migratzaile guztien eta horien familiakoen eskubideak babesteari buruzko Nazioarteko Konbentzioa,
- e) Aitortuz, desgaitasuna etengabeko bilakaera duen kontzeptua dela, eta horren eragiletzat elkarrekintza hartu behar dela, bateko, gabeziak dituzten pertsonen, eta, besteko, pertsona horiek gizartean bete-

participación plena y efectiva en la sociedad, en igualdad de condiciones con las demás,

f) Reconociendo la importancia que revisten los principios y las directrices de política que figuran en el Programa de Acción Mundial para los Impedidos y en las Normas Uniformes sobre la Igualdad de Oportunidades para las Personas con Discapacidad como factor en la promoción, la formulación y la evaluación de normas, planes, programas y medidas a nivel nacional, regional e internacional destinados a dar una mayor igualdad de oportunidades a las personas con discapacidad,

g) Destacando la importancia de incorporar las cuestiones relativas a la discapacidad como parte integrante de las estrategias pertinentes de desarrollo sostenible,

h) Reconociendo también que la discriminación contra cualquier persona por razón de su discapacidad constituye una vulneración de la dignidad y el valor inherentes del ser humano,

i) Reconociendo además la diversidad de las personas con discapacidad,

j) Reconociendo la necesidad de promover y proteger los derechos humanos de todas las personas con discapacidad, incluidas aquellas que necesitan un apoyo más intenso,

k) Observando con preocupación que, pese a estos diversos instrumentos y actividades, las personas con discapacidad siguen encontrando barreras para participar en igualdad de condiciones con las demás en la vida social y que se siguen vulnerando sus derechos humanos en todas las partes del mundo,

l) Reconociendo la importancia de la cooperación internacional para mejorar las condiciones de vida de las personas con discapacidad en todos los países, en particular en los países en desarrollo,

m) Reconociendo el valor de las contribuciones que realizan y pueden realizar las personas con discapacidad al bienestar general y a la diversidad de sus

betean eta eragingarritasunez parte hartzea, gainerakoen baldintza berberetan, saihesten duten jarrera- eta inguru-oztopoen artean,

f) Aitortuz, Ezinduentzako Munduko Ekintza Programak eta Pertsona Desgaituen Aukera Berdintasuneko Erabereko Arauek jasotako printzipioen eta jarraibideen garrantzia, maila nazionalako, erregio-mailako eta nazioarteko plan, programa eta neurriak sustatu, azaldu eta ebaluatzeko eragile gisa, pertsona desgaituei aukera-berdintasun handiagoa emateko,

g) Nabarmenduz, desgaitasunari buruzko gaiak garapen jasangarriaren kasuan kasuko estrategien osagai gisa biltzearen garrantzia,

h) Era berean aitortuz, edozein pertsonaren aurka desgaitasunarengatik egindako bereizkeria gizakiaren duintasuna eta balioa urratzea dela,

i) Halaber aitortuz, desgai diren pertsonen aniztasuna,

j) Aitortuz, pertsona desgaitu guztien giza eskubideak sustatu eta babesteko beharrezana, barnean direla babes handiagoa behar dutenak,

k) Kezkaz beteta ikusirik, aipatu tresna eta jarduerak gorabehera, pertsona desgaituek oztopoak izaten jarraitzen dutela, gainerako pertsonen baldintza berberetan parte hartzeko gizarte-bizitzan, eta munduko toki guztietan euren giza eskubideak urratzen jarraitzen direla,

l) Aitortuz, nazioarteko lankidetzak duen garrantzia, pertsona desgaituen bizitza-baldintzak hobetzeko herrialde guztietan, bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetan,

m) Aitortuz, pertsona desgaituek ongizate orokorrari eta euren erkidego anitzei egiten dizkieten eta egin ahal dizkieten ekarpenen balioa, eta pertsona desgaituek giza

comunidades, y que la promoción del pleno goce de los derechos humanos y las libertades fundamentales por las personas con discapacidad y de su plena participación tendrán como resultado un mayor sentido de pertenencia de estas personas y avances significativos en el desarrollo económico, social y humano de la sociedad y en la erradicación de la pobreza,

- n) Reconociendo la importancia que para las personas con discapacidad reviste su autonomía e independencia individual, incluida la libertad de tomar sus propias decisiones,
- o) Considerando que las personas con discapacidad deben tener la oportunidad de participar activamente en los procesos de adopción de decisiones sobre políticas y programas, incluidos los que les afectan directamente,
- p) Preocupados por la difícil situación en que se encuentran las personas con discapacidad que son víctimas de múltiples o agravadas formas de discriminación por motivos de raza, color, sexo, idioma, religión, opinión política o de cualquier otra índole, origen nacional, étnico, indígena o social, patrimonio, nacimiento, edad o cualquier otra condición,
- q) Reconociendo que las mujeres y las niñas con discapacidad suelen estar expuestas a un riesgo mayor, dentro y fuera del hogar, de violencia, lesiones o abuso, abandono o trato negligente, malos tratos o explotación,
- r) Reconociendo también que los niños y las niñas con discapacidad deben gozar plenamente de todos los derechos humanos y las libertades fundamentales en igualdad de condiciones con los demás niños y niñas, y recordando las obligaciones que a este respecto asumieron los Estados Partes en la Convención sobre los Derechos del Niño,
- s) Subrayando la necesidad de incorporar una perspectiva de género en todas las actividades destinadas a promover el pleno goce de los derechos humanos y las libertades fundamentales por las personas con discapacidad,

eskubideak eta oinarrizko askatasunak osotasunean izatea eta erabat parte hartzea sustatzen bada, horrek berarekin ekarriko duela, bai pertsona horiek euren burua gizarteko kide moduan gehiago sentitzea, bai eta gizartearen garapen ekonomiko, sozial eta gizalegezkoari eta txirotasuna desagerrarazteari dagokienez aurrerapauso garrantzitsuak ematea ere,

- n) Aitortuz, pertsona desgaituentzat garrantzitsua dela euren banakako autonomia eta independentzia, barnean dela dagozkien erabakiak hartzeko askatasuna ere,
- o) Kontuan harturik, pertsona desgaituek modu aktiboan parte hartzeko aukera izan behar dutela politikei eta programei buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan, eurak zuzenean ukitzen dituztenetan barne,
- p) Kezka bizia izanik, pertsona desgaituek duten egoera zaila dela eta, bereizkeria-mota anitz edo astunduen biktima izateagatik, arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala, jatorri etnikoa, jatorri indigena edo gizarte-jatorria, ondarea, jaiotza, adina edo beste edozein ezaugarri dela bide,
- q) Aitortuz, emakume eta haur desgaituek arrisku handiagoa izan ohi dutela, etxebizitzan nahiz etxebizitzatik kanpo, indarkeria, lesioak edo abusua, abandonua edo zabarkeriazko tratua, tratu txarrak edo esplotazioa jasateko,
- r) Era berean aitortuz, haur desgaituek oso-osoan izan behar dituztela giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak, gainerako haurren baldintza berberetan, eta gogoraturik estatu alderdiek horren inguruan hartu zituzten betebeharrak haurren eskubideei buruzko Konbentzioan,
- s) Azpimarratuz, pertsona desgaitu guztiak giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak oso-osoan izatea sustatzeko jarduera guztietara genero-ikuspegia biltzeko beharrezana,

t) Destacando el hecho de que la mayoría de las personas con discapacidad viven en condiciones de pobreza y reconociendo, a este respecto, la necesidad fundamental de mitigar los efectos negativos de la pobreza en las personas con discapacidad,

u) Teniendo presente que, para lograr la plena protección de las personas con discapacidad, en particular durante los conflictos armados y la ocupación extranjera, es indispensable que se den condiciones de paz y seguridad basadas en el pleno respeto de los propósitos y principios de la Carta de las Naciones Unidas y se respeten los instrumentos vigentes en materia de derechos humanos,

v) Reconociendo la importancia de la accesibilidad al entorno físico, social, económico y cultural, a la salud y la educación y a la información y las comunicaciones, para que las personas con discapacidad puedan gozar plenamente de todos los derechos humanos y las libertades fundamentales,

w) Conscientes de que las personas, que tienen obligaciones respecto a otras personas y a la comunidad a la que pertenecen, tienen la responsabilidad de procurar, por todos los medios, que se promuevan y respeten los derechos reconocidos en la Carta Internacional de Derechos Humanos,

x) Convencidos de que la familia es la unidad colectiva natural y fundamental de la sociedad y tiene derecho a recibir protección de ésta y del Estado, y de que las personas con discapacidad y sus familiares deben recibir la protección y la asistencia necesarias para que las familias puedan contribuir a que las personas con discapacidad gocen de sus derechos plenamente y en igualdad de condiciones,

y) Convencidos de que una convención internacional amplia e integral para promover y proteger los derechos y la dignidad de las personas con discapacidad contribuirá significativamente a paliar la profunda desventaja social de las personas con discapacidad y promoverá su participación, con igualdad de oportunidades, en los ámbitos civil, político,

t) Nabarmenduz, pertsona desgaitu gehienak txirotasun-baldintzetan bizi direla, eta gogoraturik, horri dagokionez, pertsona desgaituengan txirotasunak dituen ondore negatiboak arintzeko funtsezko beharrezana,

u) Aintzat harturik, pertsona desgaituen erabateko babesa lortzeko, bereziki gatazka armatuek eta atzerritarren okupazioek iraun bitartean, ezinbestekoa dela bake- eta segurtasun-baldintzak izatea, Nazio Batuen Gutunaren asmoak eta printzipioak bete-betean errespetatzen dituztenak, eta giza eskubideen gain indarrean dauden tresnak errespetatzea,

v) Aitortuz, garrantzitsua dela eskuragarri izatea inguru fisiko, sozial, ekonomiko eta kulturala, osasuna nahiz hezkuntza, eta informazioa nahiz komunikazioak, pertsona desgaituek oso-osoan eduki ahal izateko giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak,

w) Jakitun izanik, beste pertsona batzuei eta euren erkidegoari begira betebeharrak dituzten pertsonen ardura dutena, bide guztiak baliatuta, ahaleginak egiteko Giza Eskubideen Nazioarteko Gutunean aitortutako eskubideak sustatu eta errespetatu daitezkeen,

x) Jakinik, familia gizartearen berezko unitate kolektibo eta funtsezkoa dena, eta familiak eskubidea duena gizarteak eta estatuak babes dezaten, eta pertsona desgaituek eta horien familiakoek behar adinako babesa eta laguntza izan behar dutena, familiek lagundu ahal izateko pertsona desgaituek euren eskubideak oso-osoan eta baldintza berberetan izateari dagokionez,

y) Jakinik, pertsona desgaituen eskubideak eta duintasuna sustatu eta babesteko nazioarteko konbentzio zabal eta oso-osoko batek modu garrantzitsuan lagunduko duela pertsona desgaituen gizarte-desabantaila sakona arintzen, eta pertsona horien partaidetza suspertuko duela, aukera-berdintasuna eraginez esparru zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta

económico, social y cultural, tanto en los países en desarrollo como en los desarrollados,

Conviene en lo siguiente:

### **Artículo 1. Propósito**

El propósito de la presente Convención es promover, proteger y asegurar el goce pleno y en condiciones de igualdad de todos los derechos humanos y libertades fundamentales por todas las personas con discapacidad, y promover el respeto de su dignidad inherente.

Las personas con discapacidad incluyen a aquellas que tengan deficiencias físicas, mentales, intelectuales o sensoriales a largo plazo que, al interactuar con diversas barreras, puedan impedir su participación plena y efectiva en la sociedad, en igualdad de condiciones con las demás.

### **Artículo 2. Definiciones**

A los fines de la presente Convención:

La «comunicación» incluirá los lenguajes, la visualización de textos, el Braille, la comunicación táctil, los macrotipos, los dispositivos multimedia de fácil acceso, así como el lenguaje escrito, los sistemas auditivos, el lenguaje sencillo, los medios de voz digitalizada y otros modos, medios y formatos aumentativos o alternativos de comunicación, incluida la tecnología de la información y las comunicaciones de fácil acceso;

Por «lenguaje» se entenderá tanto el lenguaje oral como la lengua de señas y otras formas de comunicación no verbal;

Por «discriminación por motivos de discapacidad» se entenderá cualquier distinción, exclusión o restricción por motivos de discapacidad que tenga el propósito o el efecto de obstaculizar o dejar sin efecto el reconocimiento, goce o ejercicio, en igualdad de condiciones, de todos los derechos humanos y libertades fundamentales en los ámbitos político, económico, social, cultural, civil o de otro tipo.

kulturalean, garapen-bidean dauden herrialdeetan nahiz herrialde garatuetan,

Hurrengo hitzartu dute:

### **1. artikulua. Asmoa**

Konbentzio honen asmoa da sustatzea, babestea eta ziurtatzea desgai diren pertsona guztiek oso-osoan eta berdintasun-baldintzetan izatea oinarrizko eskubide eta funtsezko askatasun guztiak, eta pertsona horien duintasuna errespetatzea dadila sustatzea.

Pertsona desgaituen artean badira epe luzera gabezia fisiko, mental nahiz intelektualak edo zentzumenezko gabeziak izango dituztenak, oztopo desberdinekin topo egitean gabezia horiek eragotzi ahal izango dutela pertsona horiek gizartean parte hartzea osotasunean eta eragingarritasunez, gainerakoen baldintza berberetan.

### **2. artikulua. Definizioak**

Konbentzio honen ondoretarako:

«Komunikazioak» bere baitara bilduko ditu hizkuntzak, testuak bistaratzea, Braillea, ukimen-komunikazioa, makrotipoak, sarrera errazeko multimedia-gailuak, bai eta idatzizko hizkuntza, entzumen-sistemak, hizkuntza erraza, digitalizatutako ahots-baliabideak eta komunikazioa gehitzeko edo ordeztu komunikaziorako bestelako modu, baliabide eta formatuak ere, horien artean direla informazio-teknologia eta sarrera errazeko komunikazioak;

«Hizkuntzatat» ulertuko dira ahozko hizkuntza nahiz zeinu-hizkuntza eta komunikatzeko beste modu batzuk, ahozkoak ez direnak;

«Desgaitasun-arrazoien ondoriozko bereizkeriatatik» ulertuko da edozein bereizketa, bazterketa edo murrizketa, desgaitasun-arrazoiengatik egiten dena, asmo edo ondore izanik giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztien aitortpena, gozamina eta egikaritzea oztopatzea edo ondorerik gabe uztea, esparru politikoan, ekonomikoan, sozialean, kulturalean, zibilean edo beste mota bateko esparruren batean.



Incluye todas las formas de discriminación, entre ellas, la denegación de ajustes razonables;

Por «ajustes razonables» se entenderán las modificaciones y adaptaciones necesarias y adecuadas que no impongan una carga desproporcionada o indebida, cuando se requieran en un caso particular, para garantizar a las personas con discapacidad el goce o ejercicio, en igualdad de condiciones con las demás, de todos los derechos humanos y libertades fundamentales;

Por «diseño universal» se entenderá el diseño de productos, entornos, programas y servicios que puedan utilizar todas las personas, en la mayor medida posible, sin necesidad de adaptación ni diseño especializado.

El «diseño universal» no excluirá las ayudas técnicas para grupos particulares de personas con discapacidad, cuando se necesiten.

### **Artículo 3. Principios generales**

Los principios de la presente Convención serán:

- a) El respeto de la dignidad inherente, la autonomía individual, incluida la libertad de tomar las propias decisiones, y la independencia de las personas;
- b) La no discriminación;
- c) La participación e inclusión plenas y efectivas en la sociedad;
- d) El respeto por la diferencia y la aceptación de las personas con discapacidad como parte de la diversidad y la condición humanas;
- e) La igualdad de oportunidades;
- f) La accesibilidad;
- g) La igualdad entre el hombre y la mujer;
- h) El respeto a la evolución de las facultades de los niños y las niñas con discapacidad y de su derecho a preservar su identidad.

### **Artículo 4. Obligaciones generales**

Los Estados Partes se comprometen a

Bere baitara biltzen ditu bereizkeria-mota guztiak, horien artean dela zentzuzko egokitzapenei ezezkoa ematea;

«Zentzuzko egokitzapen» gisa hartuko dira beharrezkoak eta egokiak diren aldarazpen eta moldaketak, halakoek ez dutenean ezartzen neurritz kanpoko edo ezegokia den zamarik, betiere, kasu jakin bati begira beharrezkoak badira, pertsona desgaituei berma dakien giza eskubide eta oinarritzko askatasun guztiak izatea edo egikaritzea, gainerako baldintza berberetan;

«Diseinu unibertsal» gisa ulertuko da produktuen, ingurunearen, programen eta zerbitzuen diseinua, halakoak pertsona guztiek ahalik eta gehien erabil ditzaketenean, moldatu beharrik gabe, eta espezializatutako diseinurik gabe.

«Diseinu unibertsalak» ez ditu baztertuko desgai diren pertsona-talde berezientzako laguntza teknikoak, halakoak behar direnean.

### **3. artikulua. Printzipio orokorrak**

Konbentzio honetako printzipioak izango dira:

- a) Pertsonen duintasuna, banakako autonomia, barnean dela pertsonen dagozkien erabakiak hartzeko askatasuna ere, eta independentzia errespetatzea;
- b) Bereizkeriarik eza;
- c) Gizartean erabat eta eragingarritasunez parte hartzea eta modu horretara jardunez gizarteratzea;
- d) Desberdintasuna errespetatzea eta pertsona desgaituak onartzea aniztasunaren eta giza baldintzaren alde gisa;
- e) Aukera-berdintasuna;
- f) Irisgarritasuna;
- g) Gizonaren eta emakumearen arteko berdintasuna;
- h) Haur desgaituek euren ahalmenei begira izan dezaketen garapena eta euren nortasunari eusteko duten eskubidea errespetatzea.

### **4. artikulua. Betebehar orokorrak**

Estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute,

asegurar y promover el pleno ejercicio de todos los derechos humanos y las libertades fundamentales de las personas con discapacidad sin discriminación alguna por motivos de discapacidad.

A tal fin, los Estados Partes se comprometen a:

- a) Adoptar todas las medidas legislativas, administrativas y de otra índole que sean pertinentes para hacer efectivos los derechos reconocidos en la presente Convención;
- b) Tomar todas las medidas pertinentes, incluidas medidas legislativas, para modificar o derogar leyes, reglamentos, costumbres y prácticas existentes que constituyan discriminación contra las personas con discapacidad;
- c) Tener en cuenta, en todas las políticas y todos los programas, la protección y promoción de los derechos humanos de las personas con discapacidad;
- d) Abstenerse de actos o prácticas que sean incompatibles con la presente Convención y velar por que las autoridades e instituciones públicas actúen conforme a lo dispuesto en ella;
- e) Tomar todas las medidas pertinentes para que ninguna persona, organización o empresa privada discriminen por motivos de discapacidad;
- f) Empezar o promover la investigación y el desarrollo de bienes, servicios, equipo e instalaciones de diseño universal, con arreglo a la definición del artículo 2 de la presente Convención, que requieran la menor adaptación posible y el menor costo para satisfacer las necesidades específicas de las personas con discapacidad, promover su disponibilidad y uso, y promover el diseño universal en la elaboración de normas y directrices;
- g) Empezar o promover la investigación y el desarrollo, y promover la disponibilidad y el uso de nuevas tecnologías, incluidas las tecnologías de la información y las comunicaciones, ayudas para la movilidad, dispositivos técnicos y tecnologías de apoyo adecuadas para las personas con

pertsona desgaituen giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak oso-osoan egikaritzea ziurtatu eta sustatzeko, inolako bereizkeriarik egin gabe desgaitasun-arrazoiengatik.

Ondore horretarako, estatu alderdiek hurrengo konpromisoak hartu dituzte:

- a) Konbentzio honetan aitortutako eskubideak eragingarri egiteko neurri egoki guztiak hartzea, legegintzazkoak, administratiboak nahiz beste izaera batekoak;
- b) Egoki diren neurri guztiak hartzea, legegintzazko neurriak barne, indarreko legeak, erregelamenduak, ohiturak eta eginerak aldarazi edo indargabetzeko, halakoek bereizkeria egiten dutenean pertsona desgaituen aurka;
- c) Kontuan hartzea, politika eta programa guztietan, pertsona desgaituen giza eskubideen babesa eta sustapena;
- d) Konbentzio honekin bateraezinak diren egintzak edo eginerak ez gauzatzea, eta agintari nahiz erakunde publikoek konbentzio honetan xedatutakoaren arabera jardun dezatela zaintzea;
- e) Egoki diren neurri guztiak hartzea, pertsona, erakunde edo enpresa pribatuek ere bereizkeriarik egin ez dezaten desgaitasun-arrazoiengatik;
- f) Ikerketari eta diseinu unibertsaleko ondasunen, zerbitzuen, ekipamenduaren eta instalazioen garapenari ekitea edo halakoak sustatzea, konbentzio honetako 2. artikuluko definizioarekin bat etorritz, betiere, horiek ahalik moldaketarik txikiena eta kosturik txikiena behar dutenean pertsona desgaituen beharrezan bereziak asetzeko; halakoen eskuragarritasuna eta erabilera sustatzea; eta diseinu unibertsala sustatzea arauak eta jarraibideak egiten direnean;
- g) Ikerketa eta garapenari ekitea edo horiek sustatzea, eta teknologia berrien eskuragarritasuna eta erabilera sustatzea, horien barnean direla informazio- eta komunikazio-teknologiak, mugigarritasunerako laguntzak, pertsona desgaituentzako gailu tekniko eta laguntza-

discapacidad, dando prioridad a las de precio asequible;

h) Proporcionar información que sea accesible para las personas con discapacidad sobre ayudas a la movilidad, dispositivos técnicos y tecnologías de apoyo, incluidas nuevas tecnologías, así como otras formas de asistencia y servicios e instalaciones de apoyo;

i) Promover la formación de los profesionales y el personal que trabajan con personas con discapacidad respecto de los derechos reconocidos en la presente Convención, a fin de prestar mejor la asistencia y los servicios garantizados por esos derechos.

Con respecto a los derechos económicos, sociales y culturales, los Estados Partes se comprometen a adoptar medidas hasta el máximo de sus recursos disponibles y, cuando sea necesario, en el marco de la cooperación internacional, para lograr, de manera progresiva, el pleno ejercicio de estos derechos, sin perjuicio de las obligaciones previstas en la presente Convención que sean aplicables de inmediato en virtud del derecho internacional.

En la elaboración y aplicación de legislación y políticas para hacer efectiva la presente Convención, y en otros procesos de adopción de decisiones sobre cuestiones relacionadas con las personas con discapacidad, los Estados Partes celebrarán consultas estrechas y colaborarán activamente con las personas con discapacidad, incluidos los niños y las niñas con discapacidad, a través de las organizaciones que las representan.

Nada de lo dispuesto en la presente Convención afectará a las disposiciones que puedan facilitar, en mayor medida, el ejercicio de los derechos de las personas con discapacidad y que puedan figurar en la legislación de un Estado Parte o en el derecho internacional en vigor en dicho Estado.

No se restringirán ni derogarán ninguno de los derechos humanos y las libertades fundamentales reconocidos o existentes en

tecnología egokiak, lehentasuna emanez arrazoizko prezioa dutenei;

h) Pertsona desgaituentzat eskuragarri den informazioa ematea, mugigarritasunerako laguntzen, gailu tekniko eta laguntza-teknologiaren, horien artean teknologia berrien, bai eta bestelako laguntza-moten eta laguntza-zerbitzu eta -instalazioen inguruan ere;

i) Pertsona desgaituekin lan egiten duten profesionalen eta langileen prestakuntza sustatzea, konbentzio honetan aitortutako eskubideei dagokienez, eskubide horiek bermatzen dituzten laguntza eta zerbitzuak hobeto emateko helburuarekin.

Ekonomia-, gizarte- eta kultura-eskubideei dagokienez, estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute neurriak hartzeko, euren baliabideen arabera ahal denik eta gehien, eta, beharrezkoa denean, nazioarteko lankidetzaren esparruan, arian-arian lortzeko eskubide horien erabateko egikaritzea, kalterik egin gabe konbentzio honetan jasotako betebeharrei, halakoak berehala aplikatzeko modukoak direnean nazioarteko zuzenbidearen ondorioz.

Konbentzio hau eragingarri egiteko legeria eta politikak prestatu eta aplikatzean, eta pertsona desgaituekin zerikusia duten gaiei begira erabakiak hartzeko beste prozesu batzuetan, estatu alderdiek hur-hurreko kontsultak egingo dituzte eta modu aktiboan elkarlanean arituko dira pertsona desgaituekin, baita haur desgaituekin ere, halakoak ordezkatzeko dituzten erakunde bidez.

Konbentzio honetan xedatutakoak ez ditu ukituko pertsona desgaituentzako xedapenak, halakoek ahalbide dezaketenean pertsona horiek euren eskubideak gehiago egikaritzea, betiere, eskubideok jaso direnean estatu alderdi baten legerian edo nazioarteko zuzenbidean, hori indarrean dagoenean estatu horretan.

Ez dira murriztuko, ezta indargabetuko ere, konbentzio honetako estatu alderdietan, lege, konbentzio eta hitzarmenekin,



los Estados Partes en la presente Convención de conformidad con la ley, las convenciones y los convenios, los reglamentos o la costumbre con el pretexto de que en la presente Convención no se reconocen esos derechos o libertades o se reconocen en menor medida.

Las disposiciones de la presente Convención se aplicarán a todas las partes de los Estados federales sin limitaciones ni excepciones.

#### **Artículo 5. Igualdad y no discriminación**

- Los Estados Partes reconocen que todas las personas son iguales ante la ley y en virtud de ella, y que tienen derecho a igual protección legal y a beneficiarse de la ley en igual medida sin discriminación alguna.
- Los Estados Partes prohibirán toda discriminación por motivos de discapacidad y garantizarán a todas las personas con discapacidad protección legal igual y efectiva contra la discriminación por cualquier motivo.
- A fin de promover la igualdad y eliminar la discriminación, los Estados Partes adoptarán todas las medidas pertinentes para asegurar la realización de ajustes razonables.
- No se considerarán discriminatorias, en virtud de la presente Convención, las medidas específicas que sean necesarias para acelerar o lograr la igualdad de hecho de las personas con discapacidad.

#### **Artículo 6. Mujeres con discapacidad**

- Los Estados Partes reconocen que las mujeres y niñas con discapacidad están sujetas a múltiples formas de discriminación y, a ese respecto, adoptarán medidas para asegurar que puedan disfrutar plenamente y en igualdad de condiciones de todos los derechos humanos y libertades fundamentales.
- Los Estados Partes tomarán todas las medidas pertinentes para asegurar el pleno desarrollo, adelanto y potenciación de la mujer, con el propósito de garantizarle el ejercicio y goce de los derechos humanos y las libertades fundamentales establecidos

erregelamenduekin edo ohiturarekin bat etorri aitortutako edo izan badiren giza eskubideak eta oinarriko askatasunak, aitzakia gisa jarriz eskubide edo askatasun horiek ez direla konbentzio honetan aitortu, edo, aitortuta ere, ez horrenbesteko pisuarekin.

Konbentzio honetako xedapenak aplikatuko zaizkie estatu federaletako zati guztiei, mugarik eta salbuespenik gabe.

#### **5. artikulua. Berdintasuna eta bereizkeriarik eza**

- Estatu alderdiek aitortzen dute pertsona guztiak berdinak direla legearen arabera eta legearen ondorioz, eta eskubidea dutela legearen babes bera izateko eta legea modu berean baliatzeko inolako bereizkeriarik gabe.
- Estatu alderdiek debekatuko dute desgaitasun-arrazoien ondorioz egindako bereizkeria oro, eta pertsona desgaitu guztiei bermatuko diete legearen babes bera eta eragingarria, edozein arrazoitan oinarritutako bereizkeriaren aurka.
- Berdintasuna sustatu eta bereizkeria ezabatzeko helburuarekin, estatu alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte zentzuzko egokitzapenak egitea ziurtatzeko.
- Konbentzio honen arabera, ez dira bereizkeriazkotzat joko pertsona desgaituen egitatezko berdintasuna gehitzeko edo lortzeko beharrezkoak diren neurri bereziak.

#### **6. artikulua. Emakume desgaituak**

- Estatu alderdiek aitortzen dute emakume eta haur desgaituek bereizkeria-mota anitz jasan dezaketela eta, horrenbestez, neurriak hartuko dituzte ziurtatzeko halakoek giza eskubide eta oinarriko askatasun guztiak oso-osoan eta berdintasun-baldintzetan baliatu ahal izatea.
- Estatu alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, emakumearen erabateko garapena, aurrerapena eta indartzea ziurtatzeko, asmoa izanik bermeak ezartzea, konbentzio honetan ezarritako giza eskubideak eta oinarriko

en la presente Convención.

### **Artículo 7. Niños y niñas con discapacidad**

- Los Estados Partes tomarán todas las medidas necesarias para asegurar que todos los niños y las niñas con discapacidad gocen plenamente de todos los derechos humanos y libertades fundamentales en igualdad de condiciones con los demás niños y niñas.
- En todas las actividades relacionadas con los niños y las niñas con discapacidad, una consideración primordial será la protección del interés superior del niño.
- Los Estados Partes garantizarán que los niños y las niñas con discapacidad tengan derecho a expresar su opinión libremente sobre todas las cuestiones que les afecten, opinión que recibirá la debida consideración teniendo en cuenta su edad y madurez, en igualdad de condiciones con los demás niños y niñas, y a recibir asistencia apropiada con arreglo a su discapacidad y edad para poder ejercer ese derecho.

### **Artículo 8. Toma de conciencia**

- Los Estados Partes se comprometen a adoptar medidas inmediatas, efectivas y pertinentes para:
  - a) Sensibilizar a la sociedad, incluso a nivel familiar, para que tome mayor conciencia respecto de las personas con discapacidad y fomentar el respeto de los derechos y la dignidad de estas personas;
  - b) Luchar contra los estereotipos, los prejuicios y las prácticas nocivas respecto de las personas con discapacidad, incluidos los que se basan en el género o la edad, en todos los ámbitos de la vida;
  - c) Promover la toma de conciencia respecto de las capacidades y aportaciones de las personas con discapacidad.
- Las medidas a este fin incluyen:
  - a) Poner en marcha y mantener campañas efectivas de sensibilización pública destinadas a:
    - i) Fomentar actitudes receptivas respecto

askatasunak egikari edo balia ditzan.

### **7. artikulua. Haur desgaituak**

- Estatu alderdiek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte ziurtatzeko haur desgaitu guztiek oso-osoan baliatzea giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak, gainerako haurren baldintza berberetan.
- Haur desgaituekin zerikusia duten jarduera guztietan, lehentasuna izango du haurraren interes gorenaren babesak.
- Estatu alderdiek bermatuko dute haur desgaituek eskubidea izatea, bai iritzia askatasunez eman dezaten, eurengan eragina duten gai guztien inguruan, iritzi hori behar den moduan kontuan hartuko dela, aintzat hartuz haurraren adina eta heldutasuna, gainerako haurren baldintza berberetan, bai eskubide hori egikaritu ahal izateko euren desgaitasunaren eta adinaren arabera laguntza egokia jaso dezaten ere.

### **8. artikulua. Kontzientzia hartzea**

- Estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, hurrengoei dagokienez berehalakoak, eragingarriak eta egokiak diren neurriak hartzeko:
  - a) Gizartea sentsibilizatzea, baita familia-mailan ere, kontzientzia gehiago har dezan pertsona desgaituei begira, eta pertsona horien eskubideak eta duintasuna errespetatzea;
  - b) Bizitzako esparru guztietan borrokatzea pertsona desgaituei begira dauden estereotipoen, aurreiritzien eta eginera kaltegarrien aurka, baita generoan edo adinean oinarritutakoen aurka ere;
  - c) Pertsona desgaituen ahalmenen eta ekarpenen inguruan kontzientzia har dadila sustatzea.
- Helburu horretarako neurriek euren baitara biltzen dute:
  - a) Jendea sentsibilizatzeko kanpaina eragingarriak abian jartzea eta iraunaraztea hurrengo helburuekin:
    - i) Jarrera irekiak suspertzea pertsona

de los derechos de las personas con discapacidad;

ii) Promover percepciones positivas y una mayor conciencia social respecto de las personas con discapacidad;

iii) Promover el reconocimiento de las capacidades, los méritos y las habilidades de las personas con discapacidad y de sus aportaciones en relación con el lugar de trabajo y el mercado laboral;

b) Fomentar en todos los niveles del sistema educativo, incluso entre todos los niños y las niñas desde una edad temprana, una actitud de respeto de los derechos de las personas con discapacidad;

c) Alentar a todos los órganos de los medios de comunicación a que difundan una imagen de las personas con discapacidad que sea compatible con el propósito de la presente Convención;

d) Promover programas de formación sobre sensibilización que tengan en cuenta a las personas con discapacidad y los derechos de estas personas.

#### **Artículo 9. Accesibilidad**

• A fin de que las personas con discapacidad puedan vivir en forma independiente y participar plenamente en todos los aspectos de la vida, los Estados Partes adoptarán medidas pertinentes para asegurar el acceso de las personas con discapacidad, en igualdad de condiciones con las demás, al entorno físico, el transporte, la información y las comunicaciones, incluidos los sistemas y las tecnologías de la información y las comunicaciones, y a otros servicios e instalaciones abiertos al público o de uso público, tanto en zonas urbanas como rurales.

Estas medidas, que incluirán la identificación y eliminación de obstáculos y barreras de acceso, se aplicarán, entre otras cosas, a:

a) Los edificios, las vías públicas, el transporte y otras instalaciones exteriores e interiores como escuelas, viviendas, instalaciones médicas y lugares de trabajo;

desgaituen eskubideei dagokienez;

ii) Pertzepzio positiboak eta gizarte-kontzientzia handiagoa sustatzea pertsona desgaituei begira;

iii) Pertsona desgaituen ahalmenak, merituak nahiz trebetasunak eta pertsona horiek lan egiteko tokiari eta lan-merkatuari begira egiten dituzten ekarpenak aitortu daitezela sustatzea;

b) Hezkuntza-sistemako maila guztietan pertsona desgaituenganako errespetu-jarrera suspertzea, baita adin goiztiarreko haur guztien artean ere;

c) Komunikabideetako organo guztiei eskatzea pertsona desgaituen inguruan zabal dezatela konbentzio honen helburuarekin bateragarria den irudia;

d) Sentsibilizazioari buruzko prestakuntza-programak sustatzea, halako programek kontuan hartu beharko dituztela pertsona desgaituak eta pertsona horien eskubideak.

#### **9. artikulua. Eskuragarritasuna**

• Pertsona desgaituak modu independentean bizi daitezten eta bizitzako arlo guztietan bete-betean parte har dezaten, estatu alderdiek neurri egokiak hartuko dituzte pertsona desgaituei ziurtatzeko eskuragarri izatea, gainerako pertsonen baldintza berberetan, ingurune fisikoa, garraioa, informazioa eta komunikazioak, barnean direla informazioaren eta komunikazioen sistemak eta teknologiak, eta jendurreko edo erabilera publikoko beste zerbitzu eta instalazio batzuk, hiriguneetan nahiz nekazaritza-guneetan.

Neurri horiek, eskuragarritasunerako trabak eta oztopoak identifikatu eta ezabatzea barne hartuko dutenak, aplikatuko dira, besteak beste, hurrengoei begira:

a) Eraikinak, bide publikoak, garraioa eta barruko nahiz kanpoko beste instalazio batzuk, hala nola, eskolak, etxebizitzak, mediku-instalazioak eta lan egiteko lekuak;

b) Los servicios de información, comunicaciones y de otro tipo, incluidos los servicios electrónicos y de emergencia.

• Los Estados Partes también adoptarán las medidas pertinentes para:

a) Desarrollar, promulgar y supervisar la aplicación de normas mínimas y directrices sobre la accesibilidad de las instalaciones y los servicios abiertos al público o de uso público;

b) Asegurar que las entidades privadas que proporcionan instalaciones y servicios abiertos al público o de uso público tengan en cuenta todos los aspectos de su accesibilidad para las personas con discapacidad;

c) Ofrecer formación a todas las personas involucradas en los problemas de accesibilidad a que se enfrentan las personas con discapacidad;

d) Dotar a los edificios y otras instalaciones abiertas al público de señalización en Braille y en formatos de fácil lectura y comprensión;

e) Ofrecer formas de asistencia humana o animal e intermediarios, incluidos guías, lectores e intérpretes profesionales de la lengua de señas, para facilitar el acceso a edificios y otras instalaciones abiertas al público;

f) Promover otras formas adecuadas de asistencia y apoyo a las personas con discapacidad para asegurar su acceso a la información;

g) Promover el acceso de las personas con discapacidad a los nuevos sistemas y tecnologías de la información y las comunicaciones, incluida Internet;

h) Promover el diseño, el desarrollo, la producción y la distribución de sistemas y tecnologías de la información y las comunicaciones accesibles en una etapa temprana, a fin de que estos sistemas y tecnologías sean accesibles al menor costo.

#### **Artículo 10. Derecho a la vida**

Los Estados Partes reafirman el derecho

b) Informazio, komunikazio eta beste era bateko zerbitzuak, barnean direla zerbitzu elektronikoak eta larrialdi zerbitzuak ere.

• Estatu alderdiek neurri egokiak hartuko dituzte hurrengoei begira ere:

a) Jendaurreko edo erabilera publikoko instalazioen eta zerbitzuen eskuragarritasunaren inguruan aplikatu beharreko gutxieneko arauak eta jarraibideak garatu, aldarrikatu eta gainbegiratzea;

b) Jendaurreko edo erabilera publikoko instalazioak eta zerbitzuak eskaintzen dituzten erakunde pribatuek instalazio eta zerbitzu horiei dagokienez pertsona desgaituen eskuragarritasunerako alde guztiak kontuan har ditzatela ziurtatzea;

c) Pertsona desgaituek zein eskuragarritasun-arazoren aurka borrokatu behar duten aintzat hartu eta arazo horiek ukitutako pertsona guztiei prestakuntza eskaintzea;

d) Jendaurreko eraikinak eta instalazioak hornitzea Braillean eta erraz irakurri nahiz ulertzeko formatuetan dauden seinaleekin;

e) Giza edo animalia bidezko laguntza-motak eta bitartekariak eskaintzea, gidak, irakurgailuak eta zeinu-hizkuntzaren interprete profesionalak barne, eraikinetara eta jendaurreko beste instalazio batzuetara sartzea errazteko;

f) Pertsona desgaituei laguntza eta babesa emateko beste modu egoki batzuk sustatzea, horiek informazioa lortu ahal izatea ziurtatzeko;

g) Pertsona desgaituek informazio eta komunikazioetarako sistema eta teknologia berriak, Internet barne, eskuragarri izan ditzatela sustatzea;

h) Informazio eta komunikazioetarako sistema eta teknologia eskuragarrien diseinua, ekoizpena eta zabalkundea sustatzea etapa goiztiarrean, sistema eta teknologia horiek ahalik eta kosturik txikienarekin eskuratzeko modukoak izan daitezen.

#### **10. artikulua. Bizitza-eskubidea**

Estatu alderdiek berresten dute gizaki

inherente a la vida de todos los seres humanos y adoptarán todas las medidas necesarias para garantizar el goce efectivo de ese derecho por las personas con discapacidad en igualdad de condiciones con las demás.

#### **Artículo 11. Situaciones de riesgo y emergencias humanitarias**

Los Estados Partes adoptarán, en virtud de las responsabilidades que les corresponden con arreglo al derecho internacional, y en concreto el derecho internacional humanitario y el derecho internacional de los derechos humanos, todas las medidas posibles para garantizar la seguridad y la protección de las personas con discapacidad en situaciones de riesgo, incluidas situaciones de conflicto armado, emergencias humanitarias y desastres naturales.

#### **Artículo 12. Igual reconocimiento como persona ante la ley**

- Los Estados Partes reafirman que las personas con discapacidad tienen derecho en todas partes al reconocimiento de su personalidad jurídica.
- Los Estados Partes reconocerán que las personas con discapacidad tienen capacidad jurídica en igualdad de condiciones con las demás en todos los aspectos de la vida.
- Los Estados Partes adoptarán las medidas pertinentes para proporcionar acceso a las personas con discapacidad al apoyo que puedan necesitar en el ejercicio de su capacidad jurídica.
- Los Estados Partes asegurarán que en todas las medidas relativas al ejercicio de la capacidad jurídica se proporcionen salvaguardias adecuadas y efectivas para impedir los abusos de conformidad con el derecho internacional en materia de derechos humanos.

Esas salvaguardias asegurarán que las medidas relativas al ejercicio de la capacidad jurídica respeten los derechos, la voluntad y las preferencias de la persona, que no haya conflicto de intereses ni influencia indebida, que sean proporcionales y adaptadas a las

guztien bizitza-eskubidea, eta beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte, pertsona desgaituek eskubide hori eragingarritasunez izatea bermatzeko, gainerakoen baldintza berberetan.

#### **11. artikulua. Arrisku-egoerak eta larrialdi humanitarioak**

Estatu alderdiek, nazioarteko zuzenbidearen arabera eta, zehatzago, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren eta giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen arabera dituzten arduren ondorioz, ahal dituzten neurri gehienak hartuko dituzte, pertsona desgaituen segurtasuna eta babesa bermatzeko, halakoak arrisku-egoeran daudenean, egoera horien artean direla gatazka armatuak, larrialdi humanitarioak eta hondamendi naturalak.

#### **12. artikulua. Aitorpen bera legearen arabera**

- Estatu alderdiek berresten dute pertsona desgaituek eskubidea dutela edonon aitordakieken nortasun juridikoa.
- Estatu alderdiek aitortuko dute pertsona desgaituek gaitasun juridikoa dutela, enparauen baldintza berberetan, bizitzako arlo guztietan.
- Estatu alderdiek neurri egokiak hartuko dituzte, pertsona desgaituei eskaintzeko nortasun juridikoa egikaritzean beharrezkoa duten babesa lortzea.
- Estatu alderdiek ziurtatuko dute gaitasun juridikoa egikaritzearen inguruko neurri guztietan babes egokia eta eragingarria eskaintzea, abusuak saihesteko, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearekin bat etorri.

Babes horiek ziurtatuko dute gaitasun juridikoa egikaritzearen inguruko neurri pertsonaren eskubideak, borondatea eta lehentasunak errespetatzea, neurri horiek interes-gatazka eta bidegabeko eraginetatik aske izatea, pertsonaren inguruabarrekiko proportzionalak eta



circunstancias de la persona, que se apliquen en el plazo más corto posible y que estén sujetas a exámenes periódicos, por parte de una autoridad o un órgano judicial competente, independiente e imparcial.

Las salvaguardias serán proporcionales al grado en que dichas medidas afecten a los derechos e intereses de las personas.

- Sin perjuicio de lo dispuesto en el presente artículo, los Estados Partes tomarán todas las medidas que sean pertinentes y efectivas para garantizar el derecho de las personas con discapacidad, en igualdad de condiciones con las demás, a ser propietarias y heredar bienes, controlar sus propios asuntos económicos y tener acceso en igualdad de condiciones a préstamos bancarios, hipotecas y otras modalidades de crédito financiero, y velarán por que las personas con discapacidad no sean privadas de sus bienes de manera arbitraria.

#### **Artículo 13. Acceso a la justicia**

- Los Estados Partes asegurarán que las personas con discapacidad tengan acceso a la justicia en igualdad de condiciones con las demás, incluso mediante ajustes de procedimiento y adecuados a la edad, para facilitar el desempeño de las funciones efectivas de esas personas como participantes directos e indirectos, incluida la declaración como testigos, en todos los procedimientos judiciales, con inclusión de la etapa de investigación y otras etapas preliminares.
- A fin de asegurar que las personas con discapacidad tengan acceso efectivo a la justicia, los Estados Partes promoverán la capacitación adecuada de los que trabajan en la administración de justicia, incluido el personal policial y penitenciario.

#### **Artículo 14. Libertad y seguridad de la persona**

- Los Estados Partes asegurarán que las personas con discapacidad, en igualdad de condiciones con las demás:
  - a) Disfruten del derecho a la libertad y seguridad de la persona;
  - b) No se vean privadas de su libertad ilegal

inguruabar horietara egokitutakoak izatea, ahalik eperik laburrenean aplikatzea eta aldizkako azterketen mende izatea, azterketok gauzatu beharko dituela agintari edo organo judicial eskudun, independiente eta inpartzialak.

Babes horiek proportzionalak izango dira, halako neurriek pertsonen eskubideetan eta interesetan duten eragingarren arabera.

- Artikulu honetan xedatutakoa gorabehera, estatu alderdiek egoki eta eragingarri diren neurri guztiak hartuko dituzte, pertsona desgaituen eskubidea bermatzeko, gainerakoen baldintza berberetan, jabe nahiz ondasunen jaraunsle izan daitezen, euren gai ekonomikoak kontrolatu ditzaten eta banku-maileguak, hipotekak eta bestelako finantza-kredituen modalitateak baldintza berberekin lor ditzaten. Halaber, estatu alderdiek zainduko dute pertsona desgaituak nahierara ondasunez gabetuak ez izatea.

#### **13. artikulua. Justiziara jotzea**

- Estatu alderdiek ziurtatuko dute pertsona desgaituek justiziara jo ahal izatea gainerakoen baldintza berberetan, baita prozeduraren inguruan egokitzapenak eginda eta prozedurok adinaren arabera moldatuta ere, pertsona horiek zuzeneko eta zeharkako parte-hartzaile gisa, lekukoak direnean barne, dituzten eginkizun eragingarriak errazteko, prozedura judicial guztietan, baita ikerketa-etapan eta aurreko beste etapa batzuetan ere.
- Pertsona desgaituek aukera izan dezaten justiziara eragingarritasunez jotzeko, estatu alderdiek sustatuko dute justizia-administrazioan lan egiten dutenen gaitasun egokia, baita poliziako eta espetxeetako langileena ere.

#### **14. artikulua. Pertsonaren askatasuna eta segurtasuna**

- Estatu alderdiek ziurtatuko dute pertsona desgaituei dagokienez, gainerakoen baldintza berberetan:
  - a) Pertsonaren askatasun eta segurtasunerako eskubidea izatea;
  - b) Askatasunaz legearen aurka edo

o arbitrariamente y que cualquier privación de libertad sea de conformidad con la ley, y que la existencia de una discapacidad no justifique en ningún caso una privación de la libertad.

